

AURKEZPENA

Zenbatetan sentitu duzue zuen etxean (seme-alabak, pisukideak, gurasoak, guk geuk...) ur gehiegi erabiltzen dutela/dugula dutxatzerakoan? Askotan, ezta? Eta seguru inoiz ez zarela ur gabezia dauden pertsonen azalean jarri. Nola uste duzu sentituko zirela gainontzekoek milaka litro ur gastatzen dituztela jakitean? Beraien kasuan, auskalo zenbat litro ur dituzten eguneko. Gai honi konponbide bat bilatzearen beharra ikusi dugu. Horregatik, dutxan pantaila bat ezarriko dugu, zenbat litro ur kontsumitzen ari garen azalduko diguna. Horren helburua, uraren kontsumoa murriztea eta gure faktura hain handia ez izatea izango litzateke, inguruneari laguntzeaz gain.

Asko ikertu ondoren, hainbat herrialdetan, ur eskasiaren ondorioz, mozketak egiten hasi direla ikusi dugu. Arazo hau munduko hainbat tokitan gertatu da, eta ez da gugandik oso urrun izan. Ikerketa batzuen ustetan, Espainian 5 minutu dutxan pasata 75-90 litro ur gastatzen ditugu. Afrikaren kasuan, 47 litro ur ditu eskuragarri pertsona bakoitzak eguneko. Hori kontuan izanda, Espainian dutxa batekin gastatzen dugun litro kopurua, Afrikan pertsona bakoitzak egunero eskuragarri duen ur kantitatea bikoiztera iritsi gaitezke. Espainian dutxa batekin litro ur gehiegi gastatzen ditugu etxeko beharren garbiketa kontuan izan gabe eta kontzientziazteko garaia iritsi dela uste dugu. Horretarako bururatu zaigu produktu hau sortzea, kontuan izan dezagun zer garrantzia duen uraren erabilera neurtzeak.

Gure ur kontsumoari buruz kontzientziazteko, LAMI enpresa sortu dugu. Gu Miren, Laida, Iker eta Amets gara. 16 urte ditugu eta Urretxu-Zumarraga Ikastolako batxilergoko lehen mailako ikasleak gara. Ekonomiako ikasgaian, STARTinnova programaren bidez, gure enpresa sortu behar dugun proiektua ari gara egiten.